

MUSKUILUAREN JAI GASTRONOMIKOA ZIERBENAN

Lehenengo aldiz, eta udaberriari benetako itsas gustuarekin ongi etorria emateko, Zierbenako El Puerto Elkarte Gastronomikoa Muskuiluaren Jaia antolatzen ari da. Apirilaren 8tik 10erako asteburuan ospatuko da eta bertan molusku gozo eta elikagarri honetako anoak dastatu ahal izango dira 4 euroko prezio paregabe.



Portuko merkataritza-establezimendu guztiek, jatetxeek, taberneak eta hotelak errezeta gozo-gozoak prestatuko dituzte muskuiluekin; horietako asko betiko erara izango dira (beteak, tomatearekin, saltsa berdetan, eskabetxetan, baratxuriarekin salteatuak, lurrunean, ozpin-oliotan), eta beste batzuk, berriz, era guztiz berritzailean, hala nola muskuiluak ondo pil-pilean.

Jaiaren parte hartzen dutenentzat, gainera, lehiaketa bat egongo da, non epai-mahaikoek muskuiluak prestatzeko erarik onena sarituko baitute. Bertaratutakoaren artean sari ugari zozketatuko dira, hala nola urpekaritza bataioa bi pertsonarentzat, itsaski-jana, hoteleko gau bat afari eta guzti, eta asteburua Zierbenan.

Helduek eta txikiek ondo pasatzeko, Udalak haurrentzako tailerrak antolatu ditu umeek ondo pasa dezaten eta gurasoek jai-giroaz goza dezaten.

Horrez gain, aurreikusita dago Portuan bisitaldi gidatua egitea Maritxu arrantzalearen eskutik, eta, bukaeran, jai honetako erregea den horretan oinarritutako erakustaldi gastronomikoa egingo da. Bisitaldi horretarako lekua hartu ahal izateko, aldeztu aurretik deitu behar da Zierbenako Turismo Bulegora, apirilaren 5a baino lehen.

Zierbenako giro alai osatzeko, trikitixa eta dantza taldea egongo dira.

Argibide gehiagorako:

Zierbenako El Puerto Elkarte Gastronomikoa

Harremanetarako: Victor Martinez

Tfnoa.: 636204423

www.saborapuertozierbena.com

www.zierbena.net

